

HIZNET 2003-2004 PROIEKTUA

ERAKUNDEETAN
EUSKARAREN BIZINDARRA
NEURTZEKO TRESNA

Ibon Usarralde Lasarte

Arrasaten, 2004ko azaroaren 25ean

AURKIBIDEA

Aurkibidea.....	1
1. Sarrera	3
1.1. Abiapuntua	3
1.2. Helburuak.....	3
1.3. Eginkizun zehatzak: faseak.....	4
2. Eredu teorikoa	4
2.1. Jatorrizko formulazioa: BE Objektiboa	5
2.1.1. Bizindarraren faktore objektiboak	6
2.1.2. Hizkuntzaren eta talde etnikoen arteko harremanen prozesu psikosozialak.....	6
2.2. Bizindar subjektiboa	7
2.3. Ondorioak.....	8
3. Bizindarra erakundeetan neurtzeko tresna	8
3.1. Adierazleen aukeraketa	9
3.2. Adierazleen ponderazioa.....	9
3.3. Metodologia eta teknikak.....	9
3.4. Ondorioak.....	10
4. Eranskina.....	11
5. Bibliografia	45

1. SARRERA

Errealitatea eraldatu ahal izateko behar-beharrezkoa da, lehenik, errealitate hori ezagutzea. Hainbat eremu, alor eta esparrutan euskara normalizatu nahi dugunok ere, euskararen errealitate hori zenbatekoa den, nolakoa den... ezagutu behar dugu. Soilik, errealitatea ezagutuz diseinatu eta inplementatu baitaitezke errealitate hori bera eraldatuko duten ekimen, neurri, estrategia... eraginkorrak. Errealitatea behar den moduan ezagutu ezean, hara eta hona, joan-etorrian aritu gaitzke okerreko lekuan ari eta ari.

Euskararen errealitatea ezagutzeko tresna bat gehiago izan nahi du ahalegin honen emaitzak.

1.1. ABIAPUNTUA

EMUNen enpresa eta erakundeetako erabilera neurtzeko tresna bat sortua dugu (2Di). Hizkuntza errealitateak, ordea, baditu beste aurpegi batzuk ere: autore batzuen arabera, adibidez, ezagutza eta motibazioa. Hiru alderdi horiek, gainera, enpresa eta erakundeetan diseinatu eta inplementatu ohi ditugun hizkuntza normalizazio planen euskarri teorikoak dira. Hiru alderdi horiek batera aztertuko eta neurtuko dituen tresnarik, ordea, ez dugu. Horixe izango da gure proiektuaren erronka: hiru alderdi horiek jarraipen tresna batean integratzea eta uztartzea eta tresna horren bidez neurtzea.

1.2. HELBURUAK

- **Helburu orokorra:** enpresa eta erakundeetan euskararen egoera neurtzeko eta ebaluatzeko tresna bat sortzea.
- **Helburu zehatzak:** enpresa eta erakundeetako euskararen eta euskal hizkuntza komunitatearen egoeraren (motibazioa, ezagutza eta erabilera) berri emango diguten adierazleak hautatzea, horiek ponderatzea eta eredu teoriko baten (bizindar etnolinguistikoa, hain zuzen) arabera antolatu eta ulergarri bihurtzea. Zehazki, dimentsio demografikoaren, kontrol eta sostenguaren, estatusaren, erabileraren eta beste aldagai subjektibo batzuen inguruko informazioa lortu nahi dugu. Era berean, tresna elikatzeke metodologia eta prozedurak ere definitu nahi ditugu.

Proiektu honen helburua, beraz, tresna hori sortzea izango da. Ez dugu tresna hori enpirikoki probatuko; ez dugu erabiliko. Argi dugu tresna enpirikoki probatzeak tresna bera egokitzeko aukera emango ligukeela. Proiektuaren izaerak, ordea, ez du beste horretarako aukerarik ematen; proiektua egiteko aurreikusitako orduak tresna bera sortzen erabili ditugu. Hurrengo baterako utziko dugu beraz, ahalegin enpiriko hori tresnarentzako berarentzako oso garrantzitsua dela jakin arren.

1.3. EGINKIZUN ZEHATZAK: FASEAK

Aipaturiko helburu horiek lortzeko urrats hauek egin ditugu:

Eginkizuna
Proiektuaren helburu orokor eta zehatzak definitu
Proiektuaren plangintza zehatza egin
Eredu teorikoa definitu
Adierazleak definitu
Adierazleen jatorria definitu
Adierazleak kontrastatu
Adierazleak ponderatu
Ondorioak atera

2. EREDU TEORIKOA

Bizindar etnolinguistikoa (ethnolinguistic vitality ingelesez, BE aurrerantzean) oso kontzeptu argigarria eta erabilgarria da soziolinguistikako ikerkuntzan. Adierazia izan zenetik gaur egun arte, ehunka dira BEren kontzeptuak zabaldutako bideetatik egin diren ikerlanak.

BEren definizioa hau da:

The vitality of an ethnolinguistic group is that which makes a group likely to behave as a distinctive and active collective entity in intergroup situations. (Giles et al., 1977, 308)

Ondorioz, bizindar handiko talde etnolinguistikoek aukera handia izango dute bizirik irauteko, eta alderantziz:

... ethnolinguistic minorities that have little or no group vitality would eventually cease to exist as distinctive groups. Conversely, the more vitality a linguistic group has, the more likely it will survive and thrive as a collective entity in an intergroup context. (ibid., 308)

Esanahi zehatza izateaz gain, intuitiboa ere bada kontzeptua, eta horrek ere bere abantailak ditu. “Bizindar etnolinguistikoa” esan eta, oro har, denek uler dezakete zertaz ari garen: hizkuntza eta kultura aldetik ezaugarri bereziak dituen giza talde baten bizi-kemenaz. Kontzeptuak, nire ustez, badu beste alde on bat ere: maiz soziolinguistikan nagusi izan diren heriotzaren, ahultasunaren eta autogorrotoaren ikusmoldearen sareetatik aldentzen laguntzen digu.

Gizarte psikologiaren eremuan sortu eta garatu da bizindar etnolinguistikoaren kontzeptua. Hots, gizarte psikologiatik egindako soziolinguistikaren adierazletzat har daiteke. Bere lehen agerpena H. Giles, R. Y. Bourhis eta D. M. Taylor ikerlarien “Towards a Theory of Language in Ethnic Group Relations” (1977) artikulua izan zen. Egileen jatorrizko kezka edo helburua izan zen zehaztea zer nolako lotura duten hiru elementu hauek: hizkuntza, etnizitatea eta taldeen arteko harremanak.

Helburua zen, egileen hitzetan, oinarri objektiboa ematea ordura arte erabiltzen ari ziren hainbat ikergairi: hizkuntza aldaketa, jarrerak, etnien arteko komunikazioa, borroka etnikoa, etab. (Harwood et al., 1994, 171).

Bistan denez, aipatutako kezkak bete-betean lotzen dira hizkuntza plangintzak darabiltzanekin. Bizindar etnolinguistikoaz ari diren ikerlariak beraiek ere ohartu dira gaiak hizkuntza politikari egin diezaiokeen ekarpenaz:

EV [Ethnolinguistic Vitality] studies ... could help policy makers to make more rational decisions in such areas as the planning of the national language or languages, the role of minority languages, and the medium of instruction in education ... (Pierson, 1994, 57)

Oso ugariak dira aztertzen ari garen kontzeptuarekin lotuta ikertu diren gaiak: kulturen arteko komunikazioa, identitatea, hizkuntza jarrerak, portaera etnolinguistikoak, hizkuntzaren ikasketa, bigarren hizkuntza, elebitasuna, paisaia linguistikoa, hizkuntzaren iraupena eta galera, etab. Gehienak makro-soziolinguistikaren esparruan kokatzen dira. Bereziki erabilgarria da gehiengo eta gutxiengo linguistikoaren arteko harremanak aztertzeko:

“Il s'agit des facteurs qui déterminent le rapport de force inter-communitaire entre, d'une part une communauté minoritaire, et d'autre part une communauté majoritaire” (Allard eta Landry, 1987, 15).

Bizindar etnolinguistikoaren kontzeptuak hainbat aldi igaro ditu bere bilakabidean. Asko irabazi du ñabarduretan eta konplexutasunean, baina bere jatorrizko indarrari eutsi dio eta ez du erakargarritasunik galdu.

Kapitulu honen aurkezpena kronologikoki antolatu da, atal hauetan banatuta:

- 2.1. Jatorrizko formulazioa: bizindar objektiboa.
- 2.2. Bizindar subjektiboa.
- 2.3. Ondorioak.

2.1. JATORRIZKO FORMULAZIOA: BE OBJEKTIBOA

Arestian esan bezala, jatorrizko formulazioa H. Giles, R. Y. Bourhis eta D. M. Taylor ikerlariak plazaratu zuten “Towards a Theory of Language in Ethnic Group Relations” (1977) artikulua ospetsuan. Hor agertu zituzten kontzeptuaren definizioa eta bere inplikazio nagusiak, goian jaso direnak dira.

Egileen abiapuntua hizkuntzaren garrantzia azpimarratzea izan zen:

“Language is a highly structured and sophisticated but flexible, subtle process which capitalizes on man's most significant resources including thought, symbolism and emotion” (ibid., 307). Identitate etnikoaren eta kultura elkartasunaren sinboloa izan daiteke hizkuntza, eta maiz etnizitatearen adierazle nagusia izatera ere iristen da: “speech ... can serve as a symbol of ethnic identity and cultural solidarity” (ibid., 307). Edozein kasutan ere, ukaezina da “that language plays an important role in ethnicity and intergroup relations” (ibid., 308).

Arazo hauek aztertzeko bi tresna nagusi proposatu zituzten aipaturako autoreek: bizindarraren faktore objektiboen eredua, eta prozesu psikosozialak: hizkuntzaren eta talde etnikoen arteko harremanak aztertzeko proposamen teorikoa, Henry Tajfel-en (1974) eruedetan oinarritua.

2.1.1. Bizindarraren faktore objektiboak

Bizindarraren faktore objektiboak, edo egiturazkoak, hiru multzotan bildu zituzten aipatzen ari garen autoreek: estatusa, demografia eta babes edo sostengu instituzionala. Estatusak zerikusia du hizkuntzaren prestigioarekin, eta bertan eragiten duten faktoreak ekonomikoak, sozialak, soziohistorikoak eta linguistikoak izan daitezke. Demografiaren atalean kontuan hartu behar dira hiztunen kopurua, haien banaketa lurraldean zehar (jatorrizko lurretan dauden ala ez, bilduta ala sakabanatuta, etab.) eta, halaber, taldearen joera demografikoak. Babes instituzionalak zerikusia du hizkuntzak erakundeetan duen pisuarekin: gobernuan, elizan, ekonomian, etab.

Faktore horiek guztiak eskema ezagun batean bildu zituzten Giles eta bere lankideek:

Ethnolinguistic vitality			
Status	Demography	Institutional support	
Economic status	Distribution	Formal	Mass media Education
Social status	National territory		
Sociohistorical status	Concentration		
Language status	Proportion	Informal	Government services Industry Religion Culture
Within	Numbers		
Without	Absolute		
	Birth rate		
	Mixed marriages		
	Immigration Emigration		

1. irudia: Bizindar ethnolinguistikoaren faktore objektiboak (iturria: Giles *et al.*, 1977, 309)

Taula oso ulerterraza eta erabilgarria da. Faktore bakoitzaren neurria altua, ertaina edo txikia izan daiteke. Horrela multzoka elkartuko ditugu —estatusa, demografia eta babes instituzionala— eta denak batera bilduta taldearen bizindar ethnolinguistiko orokorra aterako zaigu, beti ere deskribapen objektiboan oinarrituta.

2.1.2. Hizkuntzaren eta talde etnikoen arteko harremanen prozesu psikosozialak

Arazoaren alde psikosozialak aztertzeko, Giles eta bere lankideek Henri Tajfel (1974) psikologoaren teoria hartu zuten abiapuntu nagusitzat (beste abiapuntu bat Gilesen beraren aurreko lanak izan ziren: hizkeraren egokitzapenaren teoria [=speech accomodation]). Tajfelen teoriak honako kontzeptu hauek erabiltzen zituen taldeen arteko harremanak ulertzeko: kategorizazio soziala, gizarte identitatea, konparazio soziala, bereizketa psikologikoa, alternatiba kognitiboak eta talde estrategiak.

Kontzeptu hauen artean kate edo sekuentzia moduko bat osatzen dute. Tajfelen (eta Gilesen) arabera, pertsonak aktiboak dira bai beren burua bai mundua definitzen. Horretarako, oinarrizko tresna kategorizazio soziala da: pertsonak (eta baita norbera ere) multzo edo kategoriatan sailkatzea: beltzak/zuriak, gizonezkoak/emakumezkoak, euskaldunak/erdaldunak... Gizarte identitateak bi alde ditu: lagun bat zein taldetako kide den jakitea, alde batetik, eta, bestetik, kategoria partaidetza horri aitortzen zaion balioa. Identitateak, beraz, asko du autoebaluaziotik, besteak beste. Identitateari, hala ere, beste taldeekiko konparazioaren bidez ematen zaio esanahia. Konparazioaren ondorioz, jendeak bere taldea beste taldeetatik bereiztea bilatzen du, batez ere onesten diren ezaugarriak areagotuz. Horrela, emaitza ona baldin bada, gizarte identitate positiboa lortzen da. Baina emaitza kontrakoa ere izan daiteke: taldeko kideak ohartzen direnean egoera txarrean daudela, gainerako taldeekin alderatuta. Orduan, oso garrantzitsua da mendeko taldeko kideek alternatiba kognitiboak aurkitzea egoera aldatzeko, hau da, ikustea egoera alda daitekeela eta badaudela alternatibak horretarako. Sekuentzian, azkenik, talde estrategiak ditugu: mendeko nahiz goiko taldeek erabiltzen dituzten estrategiak egoera aldatzeko nahiz berdin iraunarazteko.

Aipatutako kontzeptuek laguntza handia eskain dezakete hizkuntzei edo hizkuntza komunitateei dagozkien arazoak azaltzeko, Gilesek eta bere lankideek nabarmendu zutenek (1977, 324-343).

2.2. BIZINDAR SUBJEKTIBOA

Giles eta bere lankideak berehala ohartu ziren bizindar etnolinguistikoaren alde subjektiboak irizpide objektiboak bezain garrantzitsuak zirela. Hau da, bat al zetozen emaitza objektiboak —bizindar etnolinguistikoaren faktoreak objektiboki neurtuta— eta emaitza subjektiboak —taldeko kideek euren egoerari buruz zuten iritzi subjektiboa? Hori argitzeko asmoz, galdetegi bat prestatu zuten Richard Bourhis, Howard Giles eta Doreen Rosenthal bizindar subjektiboa neurtzeko, “Notes on the construction of a ‘subjective vitality questionnaire’ for ethnolinguistic groups” (1981) izenburuko artikuluan plazaratu zutena.

Galdetegiak (SVQ=Subjective Vitality Questionnaire) 22 galdera zituen. Galdera horiek bizindar objektiboa neurtzeko faktoreetatik eratorriak ziren: galdera bakoitza faktore objektiboren batekin lotzen zen. Horrela, alde objektiboa eta subjektiboa uztartuta, errazago izango zen neurtzea talde etnolinguistiko baten aukerak komunitate bereizi bezala bizirauteko kultura nagusiekiko ukipenean.

Melburne-n (Australia) erabili zuten galdetegia estreinako aldiz, britainiar eta greziar jatorriko taldeen arteko harremanak aztertzeko (ibid., 151-155).

Orain artekoak, beraz, Giles, Bourhis eta beren lankideen teoriaren lehenengo formulazioak dira. Bizindar etnolinguistikoa kontzeptua plazaratu zuten, eta horrekin batera, bizindarra objektiboki zein subjektiboki neurtzeko irizpideak ere proposatu zituzten. Beren teoria oso emankorra suertatu zen eta oso ugariak ziren bide horietatik egin ziren ikerketak. Nabarmenezkoa da, esate baterako, Giles eta Johnson-en artikulua bat (1987), identitate etnolinguistikoa eta hizkuntzaren iraupena lotzen zituen. Aldi berean, ekarpen berriak ere egin zitzaizkion. Esanguratsuen hurrengo atalean aurkeztuko dena izan zen.

2.3. ONDORIOAK

Bizindar etnolinguistikoa oso kontzeptu argigarria eta baliagarria izan da 1977. urtean aurreneko aldiz agertu zutenetik, eta horrelakoa izaten segitu du bere formulazio guztietan.

Denborarekin batera nabarduretan, konplexutasunean eta aberastasunean irabazi du, baina hasierako eredu sinpleak ez dira baztertzekoak: ikertzaileak erabaki behar du zein eredu erabili ikerketaren helburuen arabera. Adibidez, hizkuntzaren egoeraren ikuspegi orokorra eman nahi dugunean azkenaldiko ereduak erabiliko ditugu batez ere; eta helburu xumeagoak ditugunean edo zatikako azterketak egin nahi ditugunean, orduan hasierako ereduak hartuko ditugu, erabiltzeko errazagoak dira-eta.

Bizindar etnolinguistikoa hizkuntza plangintzaren abiapuntua da, bi zentzutan:

Hizkuntza plangintzaren helburua, funtsean, dagoen bizindarretik abiatu eta areagotzen saiatzea baizik ez da. Zenbat eta altuagoa izan hizkuntzaren hasierako bizindarra, gero eta neke gutxiagokoak izango dira plangintza eta normalizazio lanak.

Bizindar etnolinguistikoa ereduak normalizazioaren osagai gehienak ikuspegi orokor baten azpian bilduta jasotzen dituzte. Horiek gogoan izanda, errazagoa izango da zeren gainean lan egin eta lehentasunak nola antolatu erabakitzea.

3. BIZINDARRA ERAKUNDEETAN NEURTZEKO TRESNA

Tresna garatzeko 1. irudian eta bizindar subjektiboaren inguruan esaten denaren inguruan oinarrituko gara. Hortik abiatuta tresna asko aldatu da: edukiak egokitu eta garatu egin dira, itxuraz oso bestelako eredu batetaraino.

Aipatu bezala, gure helburua erakundeetan euskaren egoeraren hiru alderdi neurtzeko (motibazioa, ezagutza eta erabilera) tresna bat sortzea da. Tresna sortzeko honako urrats hauek jarraitu ditugu: lehenik, adierazleak aukeratu eta definitu ditugu. Ondoren, adierazle horiek ponderatu ditugu. Azkenik, adierazle horiek datuz elikatze metodoa eta teknikak definitu ditugu. Urrats bakoitzean egindakoak laburtu, argitu eta hartutako erabakiak arrazoituko ditugu.

3.1. ADIERAZLEEN AUKERAKETA

Neurketa tresna batean ezinbestean aukeratu eta definitu behar dira adierazleak. Errealitatearen zein alderdi neurtu nahi diren zehaztu behar da. Are gehiago: aztertu nahi diren eta horien artean neurtu ahal diren errealitatearen alderdiak definitu behar dira. Horregatik, beste hainbat eta hainbat adierazle erakundeetan euskararen bizindarra neurtzeko egokiak izan zitezkeen arren, tresnatik kanpo utzi ditugu, neurgaitzak edo neurtzeko oso zailak iruditu zaizkigulako... Ondoren aurkezten dugun taulan bertan aurki ditzakezue aukeratuko ditugun adierazleak eta euren definizioa. Taula honetan bizindarretik abiatu eta tresna nola hedatzen eranskinetako lehenengo taulan ikus daiteke.

Bizindarra bi motetan banatu dugu: objektiboan eta subjektiboan. Bizindar objektiboa lau alderdik osatzen dute: dimentsio demografikoa, kontrol eta sostengua, estatusa eta erabilera. Bizindar subjektiboa jarrerak, planean parte hartzeko prestutasunak eta euskararen baliagarritasunak osatzen dute. Bizindar objektiboaren lau alderdi horien baitan hainbat eta hainbat adierazle ditugu... Bizindar subjektiboaren hiru alderdi horien baitan hainbat eta hainbat adierazle ditugu...

Gisa horretara hedatu dugu eredu teorikoa, adierazle neurgarrien mailara iritsi arte.

3.2. ADIERAZLEEN PONDERAZIOA

Adierazleak aukeratu ondoren, adierazle bakoitzaren garrantzia erlatiboa zehaztu dugu. Erakundeetan euskaren bizindarra neurtzeko garaian adierazle guztiek ez dute garrantzia berdina. Batzuk beste batzuk baino pisu handiagoa dute. Horregatik ponderatu ditugu adierazle guztiak: bakoitzaren pisu erlatiboa kontuan hartzeko. Eranskinetako bigarren taulan adierazle bakoitzaren garrantzia erlatiboa zenbatekoa den ikus daiteke.

Erakunde bateko bizindarra neurtzerakoan egoera ezin osasuntsuagoa aurkituz gero gehienez 10000 puntu lor daitezkeela erabaki genuen. Beraz, sortutako tresnan 10000 puntu lor daitezke gehienez. Puntu horiek, adierazle adierazle banatzea zegokigun fase honetan: bizindar objektiboan gehienez 8000 puntu lortu daitezke eta bizindar subjektiboan gehienez 2000 puntu, bizindar objektiboaren baitako dimentsio demografikoan 2400 puntu, kontrol eta sostenguan 1200 puntu eta horrela azken adierazle lor daitezkeen gehieneko puntu kopurua definitu arte.

3.3. METODOLOGIA ETA TEKNIKAK

Adierazleak aukeratu, definitu eta bakoitzaren pisu erlatiboa zehaztu (ponderatu) ondoren, adierazle horiek elikatzeko metodologia eta teknikak definitu ditugu. Tresna datuz asetzeko hainbat metodologia eta teknika erabiliko ditugu: inkesta, behaketa, elkarrizketa... Eranskinetako

hirugarren taulan zehaztu dugu adierazle bakoitzari dagokion informazioa lortzeko erabiliko dugun teknika zein den.

3.4. ONDORIOAK

Tresna erabili ez izanak, hau da, tresnaren bidez errealitatea ezagutzeko ahalegina egin ez izanak ondorio argiagoak ateratzea zailtzen du. Hala ere, hainbat ondorio aipatuko ditugu:

- Proiektuan nahiz eta modu esplizituan ez aipatu, tresnan erraz antzeman daiteke **bizindar etnolinguistikaren eta Txepetxen teoriaren arteko nolabaiteko lotura** dagoela. Gure tresnan Txepetxek definitzen dituen hizkuntzaren hiru osagaiak kontuan hartu ditugu: batetik, ezagutza, bizindar objektiboaren baitako dimentsio demografikoaren bidez. Bestetik, motibazioa, bizindar subjektiboaren bidez. Eta azkenik, erabilera, bizindar objektiboaren baitan.
- Tresnaren bidez, **erakundeetako euskararen egoera neurtu dezakegula** iruditzen zaigu. Aldagai asko eta mota ezberdinekoak kontuan hartzen ditugu eta horrek, hizkuntza errealitatea bere osotasunean ezagutzeko eta neurtzeko aukera ematen digu.
- Tresnaren **erabilgarritasuna**. Sortu dugun tresnak adierazle asko ditu eta noski, horrelako tresna bat elikatzeak bere denbora eskatzen du. Zentzu horretan, tresna, agian, astunegia izan daiteke bere osotasunean urtero-urtero elikatzeko. Urtero-urtero tresna elikatzeak gainera, ziurrenik ez du zentzu handirik izango. Adibidez, urte batetik bestera euskaldunen ehunekoa ez da asko aldatuko. Beraz eta ondorioz, tresnaren hainbat alderdi urtero-urtero eguneratzeko modukoak izanagatik ere, tresna bere osotasunean hiru urtez behin-edo elikatzeko modukoa dela uste dugu.

4. ERANSKINA

4.1. LEHENENGO TAULA: ADIERAZLEAK ETA ADIERAZLEEN DEFINIZIOA

Taula honetan, enpresa eta erakundeetako euskararen bizindarra neurtzeko erabiliko ditugun adierazleak eta euren definizioa daude.

Erakundeetan euskararen bizindar etnolinguistikoa neurtzeko tresna	
<u>Adierazleak</u>	<u>Definizioa</u>
1. Bizindarra	OSASUNA
1.1. Bizindar Objektiboa	Objektiboki nolakoa da euskararen egoera?
1.1.1. Dimentsio Demografikoa	Zenbat eta nolakoak dira euskaldunak?
1.1.1.1. Zenbatekoa	Euskaldunen ehunekoa erakundeetan.
1.1.1.1.1. Euskaldunen ehunekoa	
1.1.1.1.2. Elebidun hartzaileen ehunekoa	
1.1.1.1.3. Erdaldun elebakarren ehunekoa	
1.1.1.2. Nolakotasuna	Nolakoak dira euskaldun horiek?
1.1.1.2.1. Gaitasun erlatiboa	A) Gaitasun erlatiboaren arabera
1.1.1.2.1.1. Euskaraz hitz egiteko erraztasun handiagoa dutenen ehunekoa	
1.1.1.2.1.2. Euskaraz nahiz gaztelaniaz hitz egiteko erraztasun berbera dutenen ehunekoa	
1.1.1.2.1.3. Gaztelaniaz hitz egiteko erraztasun handiagoa dutenen ehunekoa	
1.1.1.2.2. Alfabetatze maila	B) Alfabetatze mailaren arabera
1.1.1.2.2.1. Euskaraz alfabetatuen ehunekoa	
1.1.1.2.2.2. Euskaraz ia alfabetatuen ehunekoa	
1.1.1.2.2.3. Euskaraz alfabetatugabeen ehunekoa	
1.1.1.2.3. Ama hizkuntza	C) Ama hizkuntzaren arabera
1.1.1.2.3.1. Euskara bakarrik ama hizkuntzatzat dutenen ehunekoa	
1.1.1.2.3.2. Euskara eta gaztelania ama hizkuntzatzat dutenen ehunekoa	
1.1.1.2.3.3. Gaztelania ama hizkuntzatzat dutenen ehunekoa	
1.1.1.3. Trinkotasuna	Euskaldunen dentsitatea
1.1.1.3.1. Hizkuntza komunitateko kideatasuna hurbileko harreman sarean	Euskaldunen dentsitatea hurbileko harreman sarean

1.1.1.3.1.1. Euskaldunen ehunekoa hurbileko harreman sarean	
1.1.1.3.1.2. Elebidun hartzaileen ehunekoa hurbileko harreman sarean	
1.1.1.3.1.3. Erdaldun elebkarren ehunekoa hurbileko harreman sarean	
1.1.1.3.2. Trinkotasuna ahozko neurketaren arabera.	Euskaldunen dentsitatea ahozko neurketaren arabera
1.1.1.4. Azken 10 kontratatuetan euskaldunen ehunekoa	
1.1.1.5. Enpresako euskaldunen ehunekoa eskualdeko euskaldunen ehunekoarekiko	
1.1.2. Kontrol eta Sostengu Instituzionala	KONTROLA: Zenbatekoa da euskaldunek erakunde horretako hizkuntza erabilera kontrolatzeko duten gaitasuna? SOSTENGUA: Zenbatekoa da euskarak erakunde horrengandik jasotzen duten sostengua?
1.1.2.1. Kontrol Instituzionala	Erakunde bateko euskararen erabilera kontrolatzeko baldintzetako bat euskara jakitea da. Beste bat, euskararen aldeko jarrera izatea. Beste bat, Euskara Batzordeak duen erabakitze gaitasuna.
1.1.2.1.1. Organoetako kideen hizkuntza gaitasunaren (ahozkoa) arabera	Kooperatiben kasuan kontseilu errektore, zuzendaritza batzorde eta kontseilu soziala. Beste enpresa batzuetan, zuzendaritza batzordea...
1.1.2.1.1.1. Euskaldunen ehunekoa	
1.1.2.1.1.2. Elebidun hartzaileen ehunekoa	
1.1.2.1.1.3. Erdaldun elebkarren ehunekoa	
1.1.2.1.2. Organoetako kideen hizkuntza gaitasunaren (alfabetatze maila) arabera	Kooperatiben kasuan kontseilu errektore, zuzendaritza batzorde eta kontseilu soziala. Beste enpresa batzuetan, zuzendaritza batzordea...
1.1.2.1.2.1. Euskaraz alfabetatuen ehunekoa	
1.1.2.1.2.2. Euskaraz ia alfabetatuen ehunekoa	
1.1.2.1.2.3. Euskaraz alfabetatugabeen ehunekoa	
1.1.2.1.3. Organoetako kideen Euskara Planarekiko jarrera	Kooperatiben kasuan kontseilu errektore, zuzendaritza batzorde eta kontseilu soziala. Beste enpresa batzuetan, zuzendaritza batzordea...
1.1.2.1.3.1. Euskara Planarekiko erabateko adostasuna agertzen dutenen ehunekoa	
1.1.2.1.3.2. Euskara Planarekiko adostasuna agertzen dutenen ehunekoa	
1.1.2.1.3.3. Euskara Planarekiko ez ados ez aurka agertzen dutenen ehunekoa	
1.1.2.1.3.4. Euskara Planarekiko aurkakotasuna agertzen dutenen ehunekoa	
1.1.2.1.3.5. Euskara Planarekiko erabateko aurkakotasuna agertzen dutenen ehunekoa	
1.1.2.1.4. Organoetako kideen ehunekoa Euskara Batzordean	Organoetako zenbat kide dira euskara batzordeko kide.
1.1.2.2. Sostengu Instituzionala	SOSTENGUA: euskarak erakundearen aldetik jasotzen duen babes, sostengua.
1.1.2.2.1. Euskara Planean dabilzanen lan jardun kopurua, enpresako lan jardun kopuru osoarekiko.	Euskara Batzordearen orduak, euskara eskolen orduak, erabilera taldeko orduak... zenbat lan jardun osatzen dituzten kalkulatu ondoren kopuru horrek erakundeko lan jardun kopuru osoarekiko ze ehuneko suposatzen duen zehaztuko dugu.
1.1.2.2.2. Euskara Planaren aldeko diru baliabideen ehunekoa (euskara eskolak, euskara batzordeak, itzulpenak, kanpo aholkularitza...)	Euskara Planaren kostuak aurrekontu osoarekiko suposatzen duen ehunekoa.
1.1.2.2.3. Hilabete kopurua Euskara Planean/120 hilabete	Erakunde horrek euskara planean daraman hilabete kopuruak 120 hilabeterekiko suposatzen duen ehunekoa. 120 hilabete 10 urte dira eta kopuru hori ezarri dugu euskara planaren hilabete kopuru maximoa balitz bezala.

1.1.3. Estatusa	Zenbatekoa da euskararen prestigioa erakunde horretan?
1.1.3.1. Lanpostuen ehuneko honetan derrigorrezkoa da...	Erakunde horretako zenbat lanpostutan den beharrezkoa euskara jakitea.
1.1.3.2. Lanpostuen ehuneko honetan da baloratzen da...	Erakunde horretako zenbat lanpostutan baloratzen den euskara jakitea.
1.1.3.3. Barne harremanetarako hizkuntza politika.	Barne harremanetan zein hizkuntzatan egitea arautua dago?
1.1.3.3.1. Batez ere euskaraz egitea arautua dago.	
1.1.3.3.2. Bietara egitea arautua dago.	
1.1.3.3.3. Ez dago arautua.	
1.1.3.3.4. Batez ere gaztelaniaz egitea arautua dago.	
1.1.3.4. Kanpo harremanetarako hizkuntza politika.	Kanpo harremanetan zein hizkuntzetan egitea arautua dago?
1.1.3.3.1. Batez ere euskaraz egitea arautua dago.	
1.1.3.3.2. Bietara egitea arautua dago.	
1.1.3.3.3. Ez dago arautua.	
1.1.3.3.4. Batez ere erdaraz egitea arautua dago.	
1.1.4. Erabilera	Euskararen erabilera
1.1.4.1. Kanpo Harremanak	
1.1.4.1.1. Kanpo irudia	
1.1.4.1.1.1. Kanpo Errotulazioa	
1.1.4.1.1.1.1. Errotulu nagusia	
1.1.4.1.1.1.2. Zigiluak	
1.1.4.1.1.1.3. Logotipoa	
1.1.4.1.1.2. Komunikabideak eta publizitatea	
1.3.1.1.2.1. Eskaintzak	
1.3.1.1.2.2. Kartelak	
1.3.1.1.2.3. Katalogoak	
1.3.1.1.2.4. Tarifak	
1.3.1.1.2.5. Bideoak	
1.3.1.1.2.6. CD-ROMak	
1.3.1.1.2.7. Irratiko iragarkiak	
1.3.1.1.2.8. Telebistako iragarkiak	
1.3.1.1.2.9. Egunkarietako iragarkiak	
1.3.1.1.2.10. Jendea kontratatzeke iragarkiak	
1.3.1.1.2.11. Web orriak	
1.3.1.1.2.12. Ekitaldi publikoak	
1.3.1.1.2.13. Feriak eta azokak	
1.3.1.1.2.14. Barne-oharrak	

1.3.1.1.2.15. Ikastaroak eta aurkezpenak	
1.3.1.1.2.16. Urteroko txostena edo memoria	
1.3.1.1.2.17. Berripaperak	
1.1.4.1.1.3. Produktua eta bere dokumentazioa	
1.1.4.1.1.3.1. Eskuliburuak	
1.1.4.1.1.3.2. Kurtsoak emateko materiala	
1.1.4.1.1.3.3. Produktua (pantailak...)	
1.1.4.1.1.4. Enpresako paperak	
1.1.4.1.1.4.1. Txartel pertsonalak	
1.1.4.1.1.4.2. Karpetak	
1.1.4.1.1.4.3. Orri ofizialak	
1.1.4.1.1.4.4. Faktura orria	
1.1.4.1.1.4.5. Fax orria	
1.1.4.1.1.4.6. Gutun-azalak	
1.1.4.1.1.5. Harrera	
1.3.1.1.5.1. Aurrez-aurreko harrera	
1.3.1.1.5.2. Telefonozko harrera	
1.1.2.1.2. Zerbitzua	
1.1.2.1.2.1. Zerbitzua eman aurreko eta ondorengo ahozko eta idatzizko harremanak	
1.1.2.1.2.1.1. Komertzialen eta zerbitzu aurreko eta ondorengo harremanetarako arduradunen eta bezeroen arteko AHOZKO harremana (eskaintzak, aurkezpenak, bilerak, zerbitzuaren ondorengo balorazioak...)	
1.1.2.1.2.1.2. Harrera eta Administrazioiko langileen eta bezeroen arteko AHOZKO harremana (ordainketak eta kobraketak...)	
1.1.2.1.2.1.3. Aurkezpenetako diapositibak	
1.1.2.1.2.1.4. Eskaintza orriak eta zerbitzu eskabideak	
1.1.2.1.2.1.5. Zerbitzua izango denaren proposamenak	
1.1.2.1.2.1.6. Azterketen, txostenen eta aurrekontuen aurrerakinak	
1.1.2.1.2.1.7. Zerbitzu ondorengo ebaluazioak eta bezeroaren gogobetetzea neurtzeko inkestak	
1.1.2.1.2.1.8. Kontratuak	
1.1.2.1.2.1.9. Faktura, albaran, emate-agiri eta bestelako ordainketa-dokumentuak	
1.1.2.1.2.1.10. Garantia edo berme dokumentuak	
1.1.2.1.2.2. Zerbitzua ematerakoan izandako ahozko eta idatzizko harremanak	
1.1.2.1.2.2.1. Zerbitzua ematerakoan proiektuburu eta teknikariek bezeroarekin eduki ohi diren AHOZKO harremanak (bilerak, aurkezpenak, telefonozkoak...)	
1.1.2.1.2.2.2. Zerbitzuak dirauen bitartean egindako AURKEZPENETAKO diapositibak edo bestelako dokumentuak	

1.1.2.1.2.2.3. Zerbitzua ematerakoan egindako BILERETAKO dei, akta eta bestelako dokumentuak	
1.1.2.1.2.2.4. Lan dokumentuak: zirriborroak, aurrekontuak, behin-behineko proposamenak...	
1.1.2.1.2.2.5. Bukaerako txostenak	
1.1.2.1.2.2.6. Eskuliburuak (erabilera, mantentze lanak...)	
1.1.2.1.2.2.7. Produktua (pantailak...)	
1.1.2.1.2.2.8. Bezeroari emandako ikastaroak	
1.1.2.1.3. Bestelako kanpo harremanak	
1.1.2.1.3.1. Euskal Herrian kokatutako hornitzaileekiko ahozko eta idatzizko harremanak	
1.1.2.1.3.1.1. Euskal Herriko hornitzaileekin	
1.1.2.1.3.1.1.1. Erosketa-eskabideak	
1.1.2.1.3.1.1.2. Erreklamazio orriak	
1.1.2.1.3.1.1.3. Faxak	
1.1.2.1.3.1.1.4. Txekeak	
1.1.2.1.3.1.1.5. Kontratuak	
1.1.2.1.3.1.1.6. Baldintza pleguak	
1.1.2.1.3.1.1.7. AHOZKO harremanak	
1.3.1.3.1.2. Beste enpresa taldeekin	
1.3.1.3.1.2.1. IDATZIZKO harremanak	
1.3.1.3.1.2.2. AHOZKO harremanak	
1.3.1.3.1.3. Ikastetxeekin	
1.3.1.3.1.3.1. IDATZIZKO harremanak	
1.3.1.3.1.3.2. AHOZKO harremanak	
1.1.2.1.3.2. Euskal Herrian kokatutako administrazioarekiko ahozko eta idatzizko harremanak	
1.1.2.1.3.3. Gobernuarekin	
1.1.2.1.3.3.1. Ingurumeneko agiriak	
1.1.2.1.3.3.2. Segurtasun eta osasuneko dokumentazioa	
1.1.2.1.3.3.3. Faxak	
1.1.2.1.3.3.4. Gutunak	
1.1.2.1.3.3.5. AHOZKO harremanak	
1.1.2.1.3.4. Foru Aldundiekin	
1.1.2.1.3.4.1. Zergak	
1.1.2.1.3.4.2. Ziurtagiri-eskabideak	
1.1.2.1.3.4.3. Ogasuneko inprimakiak betetzea	

1.1.2.1.3.4.4. Pertsonaleko gastuak eta garraioak	
1.1.2.1.3.4.5. Faxak	
1.1.2.1.3.4.6. Gutunak	
1.1.2.1.3.4.7. AHOZKO harremanak	
1.1.2.1.3.5. Udalekin	
1.1.2.1.3.5.1. Obra egiteko baimenak	
1.1.2.1.3.5.2. Udal tasak	
1.1.2.1.3.5.3. Faxak	
1.1.2.1.3.5.4. Gutunak	
1.1.2.1.3.5.5. AHOZKO harremanak	
1.1.2.1.3.6. Enplegu bulegoekin	
1.1.2.1.3.6.1. Ziurtagiriak	
1.1.2.1.3.6.2. Faxak	
1.1.2.1.3.6.3. Gutunak	
1.1.2.1.3.6.4. AHOZKO harremanak	
1.1.2.1.3.7. Gizarte Segurantzarekin	
1.1.2.1.3.7.1. Altak eta bajak	
1.1.2.1.3.7.2. Jubilazio-planak	
1.1.2.1.3.7.3. Kotizazio taulak	
1.1.2.1.3.7.4. Faxak	
1.1.2.1.3.7.5. Gutunak	
1.1.2.1.3.7.6. AHOZKO harremanak	
1.2.2.1.3.3. Euskal Herrian kokatutako finantza erakundeekiko ahozko eta idatzizko harremanak	
1.2.2.1.3.3.1. Abalak	
1.2.2.1.3.3.2. Ordainketa-eskabideak	
1.2.2.1.3.3.3. AHOZKO harremanak (sukurtsalarekin eta zentralarekin)	
1.1.4.2. Barne Harremanak	
1.1.4.2.1. Barne Irudia	-
1.1.4.2.2.1. Barne errotulazioa	
1.1.4.2.2.1.1. Informazio errotuluak	
1.1.4.2.2.1.2. Armairu eta apaletako etiketak	
1.1.4.2.2.1.3. Artxibo eta karpitetako etiketak	
1.1.4.2.2.1.4. Agendak	
1.1.4.2.2.1.5. Egutegiak	
1.1.4.2.2.1.6. Horma irudiak	

1.1.4.2.2.1.7. Fotokopiagailuetako errotulazioa	
1.1.4.2.2.2. Batzar Nagusia eta informazio bilerak	
1.1.4.2.2.2.1. Idatzizkoa	
1.1.4.2.2.2.1.1. Bilerarako deiak	
1.1.4.2.2.2.1.2. Txostenak (estatutu-aldaketak, bategiteak...)	
1.1.4.2.2.2.1.3. Bazkideentzako gutunak eta gonbiteak	
1.1.4.2.2.2.1.4. Hautaketa orriak, asistentzia-txartelak...	
1.1.4.2.2.2.2. Ahozkoa	
1.1.4.2.2. Barne Ahozkoa	-
1.1.4.2.2.1. Ahozko erabilera	
1.1.4.2.2.2. Lan bilerak	
1.1.4.2.2.2.1. Lan bilerak	
1.1.4.2.2.2.2. Zuzendaritza Batzordea	
1.1.4.2.2.2.3. Informazio bilerak	
1.1.4.2.2.3. Formazioa	
1.1.4.2.2.3.1. Informatikako kurtsoak	
1.1.4.2.2.3.2. Bazkideentzako ikastaroak	
1.1.4.2.2.3.3. Lanpostuko formazioa (kalitatea, fabrikazioa...)	
1.1.4.2.3. Barne Idatzizkoa	-
1.1.4.2.3.1. Zabalkunde handiko dokumentuak (e-mailak barne)	
1.1.4.2.3.1.1. Ohar tauletakoak	
1.1.4.2.3.1.2. E-mailak	
1.1.4.2.3.1.3. Langileentzako orriak	
1.1.4.2.3.1.3.1. Nominak	
1.1.4.2.3.1.3.2. Lan-orria	
1.1.4.2.3.1.3.3. Km-orria	
1.1.4.2.3.1.3.4. Dieta-orria	
1.1.4.2.3.1.3.5. Telefono zenbakien zerrendak	
1.1.4.2.3.2. Ekoizpen eta funtzionamenduaren inguruko dokumentu laburrak	
1.1.4.2.3.2.1. Kalitatea, fabrikazioa eta mantentze lanak, segurtasuna eta osasuna	
1.1.4.2.3.2.1.1. Argibide-orriak	
1.1.4.2.3.2.1.2. Aurreikusten diren arriskuak jakinarazteko fitxak	
1.1.4.2.3.2.1.3. Segurtasun eta Osasunerako fitxak	
1.1.4.2.3.2.1.4. Iradokizun orriak	
1.1.4.2.3.2.1.5. Istripu-parteak	
1.1.4.2.3.2.1.6. Asteroko, hileroko, urteroko... produkzioaren laburpena	

1.1.4.2.3.2.1.7. Atzera botatakoen orria	
1.1.4.2.3.2.1.8. ISOko formatu, dokumentu eta fitxak	
1.1.4.2.3.2.1.9. Ekintzen jarraipena egiteko orria	
1.1.4.2.3.2.1.10. Erosketa-eskaerak	
1.1.4.2.3.2.1.11. Inbertsioen proposamen-orriak	
1.1.4.2.3.2.1.12. Makina ondoko asistentzia orriak	
1.1.4.2.3.2.1.13. Mantenimendu-pautak	
1.1.4.2.3.2.1.14. Materialaren ezegokitasun-orriak	
1.1.4.2.3.2.1.15. Ordenadoreen mantenimenduari lotutako beste dokumentazioa	
1.1.4.2.3.2.1.16. Piezen datuak aldatzeko edo ezabatze orria	
1.1.4.2.3.2.1.17. Piezen espezifikazioak	
1.1.4.2.3.2.1.18. Piezen planoak	
1.1.4.2.3.2.1.19. Planifikazio-orria	
1.1.4.2.3.2.1.20. Planoak	
1.1.4.2.3.2.1.21. LTZko orriak	
1.1.4.2.3.2.2. Administrazioa, Finantzak, Pertsonala eta gainontzeko zerbitzu orokorrak	
1.1.4.2.3.2.2.1. Helburuen zehaztapen eta betetze mailaren orria	
1.1.4.2.3.2.2.2. Esplotazio-kontua	
1.1.4.2.3.2.2.3. Gestio-kontrola	
1.1.4.2.3.2.2.4. Baja parteak	
1.1.4.2.3.2.2.5. Kontabilitate-agiriak	
1.1.4.2.3.2.2.6. Pertsonalaren sarrerak, lanpostu aldaketak etab... jasotzeko inprimakia	
1.1.4.2.3.2.2.7. Langileen balorazio orriak	
1.1.4.2.3.2.2.8. Produktibitate-datuen laburpena	
1.1.4.2.3.2.2.9. Ordainketa ziurtatuak	
1.1.4.2.3.2.2.10. Salmenten fakturazioa	
1.1.4.2.3.2.2.11. Salmenten jarraipen-orriak	
1.1.4.2.3.2.2.12. Salmenten fakturazioa	
1.1.4.2.3.2.2.13. Salmenten jarraipen-orriak	
1.1.4.2.3.2.3. Lan bileretako dokumentuak	
1.1.4.2.3.2.3.1. Lan bileretako dokumentuak	
1.1.4.2.3.2.3.2. Zuzendaritza batzordea	
1.1.4.2.3.2.3.3. Informazio bilerak	
1.1.4.2.3.2.4. Formazioko dokumentuak	

1.1.4.2.3.2.4.1. Ikastaroetarako deiak	
1.1.4.2.3.2.4.2. Gardenkiak edo diapositibak	
1.1.4.2.3.2.4.3. Formazio-plana	
1.1.4.2.3.2.4.4. Ebaluazio orriak	
1.1.4.2.3.3. Ekoizpen eta funtzionamenduaren inguruko dokumentu luzeak	
1.1.4.2.3.3.1. Kalitatea, fabrikazioa eta mantentze lanak, segurtasuna eta osasuna	
1.1.4.2.3.3.1.1. Amaierako kontrol-arauak	
1.1.4.2.3.3.1.2. Amaierako kontrolaren txostenak	
1.1.4.2.3.3.1.3. Auditoria	
1.1.4.2.3.3.1.4. Prozesuaren auditoretza txostenak	
1.1.4.2.3.3.1.5. Dokumentazio tekniko: aldizkariak, liburuak, eskuliburuak...	
1.1.4.2.3.3.1.6. ISOko prozedurak eta instrukzioak	
1.1.4.2.3.3.1.7. Kalitate-txostenak	
1.1.4.2.3.3.1.8. Segurtasun-instrukzioak	
1.1.4.2.3.3.2. Administrazioa, Finantzak, Pertsonala eta gainontzeko zerbitzu orokorrak	
1.1.4.2.3.3.2.1. Kontratuak	
1.1.4.2.3.3.2.2. Urte bukaerako txostena	
1.1.4.2.3.3.2.3. Aukeraketetarako arauak	
1.1.4.2.3.3.2.4. E-mailen kontua	
1.1.4.2.3.3.2.5. Harrera plana	
1.1.4.2.3.3.2.6. Gestio-plana eta horren kontrol eta jarraipena	
1.1.4.2.3.3.2.7. Inbentarioak	
1.1.4.2.3.3.2.8. Jubilazio-planak	
1.1.4.2.3.3.2.9. Bezeroen datu basea	
1.1.4.2.3.3.2.10. Plan estrategikoa eta horren jarraipena	
1.1.4.2.3.3.2.11. Lanpostuen deskribapenak eta balorazioak	
1.1.4.2.3.3.3. Lan bilerak eta formazio ikastaroetako dokumentuak	
1.1.4.2.3.3.3.1. Bilera-aktak	
1.1.4.2.3.3.3.2. Lan bileretako dokumentuak	
1.1.4.2.3.3.4. Formazioko dokumentuak	
1.1.4.2.3.3.4.1. Ikastaroetako edukiak	
1.1.4.2.3.3.4.2. Ikastaroen urteko ebaluazioa	
1.1.4.2.3.3.4.3. Material didaktikoa (windows edo word kurtsoak, ...)	
1.1.4.2.3.3.4.4. Enpresan bertan dauden formazio-eskuliburuak	
1.1.4.2.4. Informatika	-

1.1.4.2.4.1. Aplikazio informatiko orokorrak	
1.1.4.2.4.1.1. Sistema eragilea (Linux, Windows 3.11, Windows 95, Windows 98...)	
1.1.4.2.4.1.2. Testu prozesadorea (Word...)	
1.1.4.2.4.1.3. Kalkulu-orria (Excel...)	
1.1.4.2.4.1.4. Aurkezpenak (PowerPoint...)	
1.1.4.2.4.1.5. Posta elektronikoaren programa (Outlook, Outlook Express, Eudora, Internet...)	
1.1.4.2.4.1.6. Interneteko nabigatzailea (Internet Explorer, Netscape Navigator...)	
1.1.4.2.4.1.7. Datu-baseak (Access...)	
1.1.4.2.4.2. Aplikazio informatiko bereziak	
1.1.4.2.4.2.1. Programa integralak (hainbat sailetako funtzioak integratzen dituztenak; SAP, BAAN, Proiektuen Kudeaketa...)	
1.1.4.2.4.2.2. Kontabilitate-programa	
1.1.4.2.4.2.3. Nominaren programa	
1.1.4.2.4.2.4. Fakturazio-programa	
1.1.4.2.4.2.5. Erosketen programa	
1.1.4.2.4.2.6. Eskaeren gestiorako programa	
1.1.4.2.4.2.7. Proiektuen jarraipen programa	
1.1.4.2.4.2.8. Kalitateko programa (kostuak, kalibrazioa, kontrola...)	
1.1.4.2.4.2.9. Aurrekontu-programak	
1.1.4.2.4.2.10. Diru-ekarpenen programa	
1.1.4.2.4.2.11. Proiektuen gestiorako programak (MS Project...)	
1.1.4.2.4.3. Intraneta	
1.1.4.2.4.3.1. Orri nagusia	
1.1.4.2.4.3.2. Menu nagusia	
1.1.4.2.4.3.3. Aurkezpen orriak	
1.1.4.2.4.3.4. Testuak	
1.2. Bizindar Subjektiboa	Subjektiboki nolakoa da euskararen egoera?
1.2.1. Jarrera	Erakundeko langileen jarrera
1.2.1.1. Euskara Planarekiko jarrera	Erakundeko langileek euskara planarekiko (orokorrean) duten jarrera
1.2.1.1.1. Euskara Planarekiko erabateko adostasuna agertzen dutenen ehunekoa	
1.2.1.1.2. Euskara Planarekiko adostasuna agertzen dutenen ehunekoa	
1.2.1.1.3. Euskara Planarekiko ez ados ez aurka agertzen dutenen ehunekoa	
1.2.1.1.4. Euskara Planarekiko aurkakotasuna agertzen dutenen ehunekoa	
1.2.1.1.5. Euskara Planarekiko erabateko aurkakotasuna agertzen dutenen ehunekoa	
1.2.1.2. Euskara Planeko balizko hainbat helbururekiko jarrera	Erakundeko langileek euskara planaren helburu zehatzekiko duten jarrera
1.2.1.2.1. Enpresaren irudi korporatiboa	

1.2.1.2.1.1. Irudian euskara gehiago erabiltzearekiko erabateko adostasuna agertzen dutenen ehunekoa	
1.2.1.2.1.2. Irudian euskara gehiago erabiltzearekiko adostasuna agertzen dutenen ehunekoa	
1.2.1.2.1.3. Irudian euskara gehiago erabiltzearekiko ez ados ez aurka agertzen dutenen ehunekoa	
1.2.1.2.1.4. Irudian euskara gehiago erabiltzearekiko aurkakotasuna agertzen dutenen ehunekoa	
1.2.1.2.1.5. Irudian euskara gehiago erabiltzearekiko erabateko aurkakotasuna agertzen dutenen ehunekoa	
1.2.1.2.2. Enpresako langileen euskararen ezagutza (hitz egiten ez dakitenek ikastea) areagotzea	
1.2.1.2.2.1. Enpresako langileen euskararen ezagutza areagotzearekiko erabateko adostasuna agertzen dutenen ehunekoa	
1.2.1.2.2.2. Enpresako langileen euskararen ezagutza areagotzearekiko adostasuna agertzen dutenen ehunekoa	
1.2.1.2.2.3. Enpresako langileen euskararen ezagutza areagotzearekiko ez ados ez aurka agertzen dutenen ehunekoa	
1.2.1.2.2.4. Enpresako langileen euskararen ezagutza areagotzearekiko aurkakotasuna agertzen dutenen ehunekoa	
1.2.1.2.2.5. Enpresako langileen euskararen ezagutza areagotzearekiko erabateko aurkakotasuna agertzen dutenen ehunekoa	
1.2.1.2.3. Enpresako langileen euskararen ezagutza (alfabetatzea) areagotzea	
1.2.1.2.3.1. Enpresako langileen euskararen ezagutza areagotzearekiko erabateko adostasuna agertzen dutenen ehunekoa	
1.2.1.2.3.2. Enpresako langileen euskararen ezagutza areagotzearekiko adostasuna agertzen dutenen ehunekoa	
1.2.1.2.3.3. Enpresako langileen euskararen ezagutza areagotzearekiko ez ados ez aurka agertzen dutenen ehunekoa	
1.2.1.2.3.4. Enpresako langileen euskararen ezagutza areagotzearekiko aurkakotasuna agertzen dutenen ehunekoa	
1.2.1.2.3.5. Enpresako langileen euskararen ezagutza areagotzearekiko erabateko aurkakotasuna agertzen dutenen ehunekoa	
1.2.1.2.4. Enpresako langileen euskararen ezagutza (dakitenek terminologia berezia ikastea) areagotzea	
1.2.1.2.4.1. Enpresako langileen euskararen ezagutza areagotzearekiko erabateko adostasuna agertzen dutenen ehunekoa	
1.2.1.2.4.2. Enpresako langileen euskararen ezagutza areagotzearekiko adostasuna agertzen dutenen ehunekoa	
1.2.1.2.4.3. Enpresako langileen euskararen ezagutza areagotzearekiko ez ados ez aurka agertzen dutenen ehunekoa	
1.2.1.2.4.4. Enpresako langileen euskararen ezagutza areagotzearekiko aurkakotasuna agertzen dutenen ehunekoa	
1.2.1.2.4.5. Enpresako langileen euskararen ezagutza areagotzearekiko erabateko aurkakotasuna agertzen dutenen ehunekoa	
1.2.1.2.5. Enpresako barne harremanetan (bilera orokor, batzar nagusi, formazioa saioetan, ohar eta mezu orokorretan...) ahoz nahiz idatziz euskara gehiago erabiltzea	

1.2.1.2.5.1. Enpresako barne harremanetan euskara gehiago erabiltzearekiko erabateko adostasuna agertzen dutenen ehunekoa	
1.2.1.2.5.2. Enpresako barne harremanetan euskara gehiago erabiltzearekiko adostasuna agertzen dutenen ehunekoa	
1.2.1.2.5.3. Enpresako barne harremanetan euskara gehiago erabiltzearekiko ados ez aurka agertzen dutenen ehunekoa	
1.2.1.2.5.4. Enpresako barne harremanetan euskara gehiago erabiltzearekiko aurkakotasuna agertzen dutenen ehunekoa	
1.2.1.2.5.5. Enpresako barne harremanetan euskara gehiago erabiltzearekiko erabateko aurkakotasuna agertzen dutenen ehunekoa	
1.2.1.2.6. Enpresako kanpo harremanetan (bezeroekin, hornitzaileekin, erakunde publikoekin, finantza erakundeekin...) ahoz nahiz idatziz euskara gehiago erabiltzea	
1.2.1.2.6.1. Enpresako kanpo harremanetan euskara gehiago erabiltzearekiko erabateko adostasuna agertzen dutenen ehunekoa	
1.2.1.2.6.2. Enpresako kanpo harremanetan euskara gehiago erabiltzearekiko adostasuna agertzen dutenen ehunekoa	
1.2.1.2.6.3. Enpresako kanpo harremanetan euskara gehiago erabiltzearekiko ados ez aurka agertzen dutenen ehunekoa	
1.2.1.2.6.4. Enpresako kanpo harremanetan euskara gehiago erabiltzearekiko aurkakotasuna agertzen dutenen ehunekoa	
1.2.1.2.6.5. Enpresako kanpo harremanetan euskara gehiago erabiltzearekiko erabateko aurkakotasuna agertzen dutenen ehunekoa	
1.2.1.2.7. Enpresako barne promozioan edo kontratazio berrietan euskara baloratzea	
1.2.1.2.7.1. Enpresako barne promozioan eta kontratazio berrietan euskara baloratzearekiko erabateko adostasuna agertzen dutenen ehunekoa	
1.2.1.2.7.2. Enpresako barne promozioan eta kontratazio berrietan euskara baloratzearekiko adostasuna agertzen dutenen ehunekoa	
1.2.1.2.7.3. Enpresako barne promozioan eta kontratazio berrietan euskara baloratzearekiko ados ez aurka agertzen dutenen ehunekoa	
1.2.1.2.7.4. Enpresako barne promozioan eta kontratazio berrietan euskara baloratzearekiko aurkakotasuna agertzen dutenen ehunekoa	
1.2.1.2.7.5. Enpresako barne promozioan eta kontratazio berrietan euskara baloratzearekiko erabateko aurkakotasuna agertzen dutenen ehunekoa	
1.2.2. Planean parte hartzeko prestutasuna	Langileek Euskara Planaren bitartekoetan parte hartzeko agertzen duten prestutasuna. Baliabideak izan daitezke: euskara eskolak, alfabetatze ikastaroak, multimedia bidezko ikastaroak, modulu bereziak...
1.2.2.1. Planean parte hartzeko motibazioa-prestutasuna: edozein baldintzetan	Langileari berdin zaio zein baldintzetan; baldintzak edonolakoak izanda ere parte hartuko du.
1.2.2.2. Planean parte hartzeko motibazioa-prestutasuna: beste hizkuntzen baldintza berdinean	Beste hizkuntza batzuk ikasteko baldintza berdinetan izanez gero parte hartuko du.
1.2.2.3. Planean parte hartzeko motibazioa-prestutasuna: beste hizkuntza baino baldintza hobeagoetan	Beste hizkuntza batzuk ikasteko baldintza hobeagoetan izanez gero parte hartuko du.
1.2.3. Euskara baliagarria da lanerako	Langileen artean zenbatek pentsatzen dute euskara baliagarria dela euren lanerako?
1.2.3.1. Erabat alde daudenen ehunekoa	
1.2.3.2. Alde daudenen ehunekoa	
1.2.3.3. Ez alde edo ez aurka daudenen ehunekoa	
1.2.3.4. Aurka daudenen ehunekoa	
1.2.3.5. Erabat aurka daudenen ehunekoa	

4.2. BIGARREN TAULA: ADIERAZLEEN PONDERAZIOA

Taula honetan adierazle bakoitzaren garrantzia erlatiboa zenbatekoa den aurkeztuko dugu.

Erakundeetan euskararen bizindar etnolinguistikoa neurtzeko tresna	
<u>Adierazleak</u>	Puntuak
1. Bizindarra	10000
1.1. Bizindar Objektiboa	8000
1.1.1. Dimentsio Demografikoa	2400
1.1.1.1. Zenbatekoa	1200
1.1.1.1.1. Euskaldunen ehunekoa	1200
1.1.1.1.2. Elebidun hartzaileen ehunekoa	480
1.1.1.1.3. Erdaldun elebakarren ehunekoa	0
1.1.1.2. Nolakotasuna	600
1.1.1.2.1. Gaitasun erlatiboa	200
1.1.1.2.1.1. Euskaraz hitz egiteko erraztasun handiagoa dutenen ehunekoa	200
1.1.1.2.1.2. Euskaraz nahiz gaztelaniaz hitz egiteko erraztasun berbera dutenen ehunekoa	100
1.1.1.2.1.3. Gaztelaniaz hitz egiteko erraztasun handiagoa dutenen ehunekoa	0
1.1.1.2.2. Alfabetetate maila	200
1.1.1.2.2.1. Euskaraz alfabetatuen ehunekoa	200
1.1.1.2.2.2. Euskaraz ia alfabetatuen ehunekoa	80
1.1.1.2.2.3. Euskaraz alfabetatugabeen ehunekoa	0
1.1.1.2.3. Ama hizkuntza	200
1.1.1.2.3.1. Euskara bakarrik ama hizkuntzatzat dutenen ehunekoa	200
1.1.1.2.3.2. Euskara eta gaztelania ama hizkuntzatzat dutenen ehunekoa	100
1.1.1.2.3.3. Gaztelania ama hizkuntzatzat dutenen ehunekoa	0
1.1.1.3. Trinkotasuna	288
1.1.1.3.1. Hizkuntza komunitateko kidesasuna hurbileko harreman sarean	202

1.1.1.3.1.1. Euskaldunen ehunekoa hurbileko harreman sarean	202
1.1.1.3.1.2. Elebidun hartzaileen ehunekoa hurbileko harreman sarean	81
1.1.1.3.1.3. Erdaldun elebakarren ehunekoa hurbileko harreman sarean	0
1.1.1.3.2. Trinkotasuna ahozko neurketaren arabera.	86
1.1.1.4. Azken 10 kontratuetan euskaldunen ehunekoa	240
1.1.1.5. Enpresako euskaldunen ehunekoa eskualdeko euskaldunen ehunekoarekiko	72
1.1.2. Kontrol eta Sostengu Instituzionala	1200
1.1.2.1. Kontrol Instituzionala	720
1.1.2.1.1. Organoetako kideen hizkuntza gaitasunaren (ahozkoa) arabera	216
1.1.2.1.1.1. Euskaldunen ehunekoa	216
1.1.2.1.1.2. Elebidun hartzaileen ehunekoa	86
1.1.2.1.1.3. Erdaldun elebakarren ehunekoa	0
1.1.2.1.2. Organoetako kideen hizkuntza gaitasunaren (alfabetatze maila) arabera	216
1.1.2.1.2.1. Euskaraz alfabetatuen ehunekoa	216
1.1.2.1.2.2. Euskaraz ia alfabetatuen ehunekoa	86
1.1.2.1.2.3. Euskaraz alfabetatugabeen ehunekoa	0
1.1.2.1.3. Organoetako kideen Euskara Planarekiko jarrera	216
1.1.2.1.3.1. Euskara Planarekiko erabateko adostasuna agertzen dutenen ehunekoa	216
1.1.2.1.3.2. Euskara Planarekiko adostasuna agertzen dutenen ehunekoa	108
1.1.2.1.3.3. Euskara Planarekiko ez ados ez aurka agertzen dutenen ehunekoa	0
1.1.2.1.3.4. Euskara Planarekiko aurkakotasuna agertzen dutenen ehunekoa	-108
1.1.2.1.3.5. Euskara Planarekiko erabateko aurkakotasuna agertzen dutenen ehunekoa	-216
1.1.2.1.4. Organoetako kideen ehunekoa Euskara Batzordean	72
1.1.2.2. Sostengu Instituzionala	480
1.1.2.2.1. Euskara Planean dabiltzanen lan jardun kopurua, enpresako lan jardun kopuru osoarekiko.	192
1.1.2.2.2. Euskara Planaren aldeko diru baliabideen ehunekoa (euskara eskolak, euskara batzordeak, itzulpenak, kanpo aholkularitza...)	192
1.1.2.2.3. Hilabete kopurua Euskara Planean/120 hilabete	96
1.1.3. Estatusa	400
1.1.3.1. Lanpostuen ehuneko honetan derrigorrezkoa da...	120
